



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2019ko urtarrila · 347 alea

TOKIKOM

A high-angle, night-time photograph of a large group of people gathered in a courtyard. The people are arranged in many rows, and most are holding up small, white rectangular signs. The courtyard is paved with cobblestones and has a central set of stairs. In the background, there are multi-story buildings with lit windows and a street lamp. The overall scene suggests a public demonstration or protest.

ZUTIK ERASO MATXISTEN AURREAN



PIL-PILEAN 347

2019ko urtarrila

Azaleko argazkiaren egilea:
Fernan Oregi.

Aurkibidea

- 4 **Bote prontuan** Aitziber Sarobe
 - 6 **Begira** Zuria
 - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
 - 14 **Argazki bidez** 27 urte kantuan
 - 18 **Erreportajea** Geltokiari buruzko herri galdeketa
 - 22 **Kirola** Patinajea eta pilota
 - 24 **Kultura** Dolmenen ibilbidea
 - 25 **Historia** Montejurrako tertzioa
 - 26 **Gure artistak** Pablo Mateo
 - 27 **Nondik nora** Alex Rodriguez eta Pili Alonso
 - 28 **Sakonean** Frantziska Iraolagoitia
 - 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
 - 3 **Neuretik** Nerea Isasti
Patria Soraluzen?
 - 16 **Gutunak** Pili Valero Alberdi eta Jose Luis Arizaga Urizar *Lanak, garajea eta komunikazioa*
 - 16 **Hausnarketa** Udal-jardunaren balorazioa
 - 17 **Zir(r)ika** P.G.
 - 17 **Puntua** Leire Elizburu
Maisu handiari agurra



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus
Zuzentzailea
Leire Ginea

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)
Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.
Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena
Lege Gordailua:
SS-537-2000
Tirada: 2.100 ale



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko
UDALA**

Patria Soraluzen?



NEREA ISASTI

Fernando Arambururen *Patria* irakurri baduzue, jakingo duzue ustez Hernanin kokatuta dagoela. Baina telesailaren produkzioaren arduradunek oraindik ez dute erabaki non grabatuko duten liburuan oinarritutako telesaila. Soraluzen, agian? Baliteke.

Soraluzeko taberna bat – zein izango da? – Joxe Mari taberna izango litzateke. Abadetxea, Bittoriren (Elena Iruretaren) etxea. Eta han ibiliko lirateke zenbait hilabetez, Pablo Trapero eta Félix Viscarret zuzendariak, Elena Irureta, Ane Gabarain eta beste aktore guztiak, Soraluzeko kaleetan barrena. Extrak kontratatuko lituzkete? Soraluzetarrak ote?

Horrek guztiak eragina izango luke herrian. *Patria* telesaila estatu mailako telebista baten emateak, Soraluze mapan kokatuko luke eta agian bisitariak erakarriko lituzke gurera. Hori onuragarri ala kaltegarri izango litzatekeen...

Gaian sakonduz gero, pentsa une batez *Patria* Soraluzen oinarrituta dagoela. Bittori Soraluzeko alargun bat dela, bere senarra ETAk erahil duela eta Miren Soraluzeko ETako kide baten ama dela. Bere semea espetxean dago, Puerto de Santamarían. Txikitan lagunak ziren. Orain, berriz...

Gai benetan polemikoa. Aramburu, *Patria* nobelaren idazlea, batzuren ustez objektiboa da. Beste batzuk diotenez, ordea, ez da erdigunean kokatzen, argi ta garbi alderdi baten alde jokatzeko du. Guztiok ezagutzen ditugu hainbat Bittori eta hainbat Miren. Baina egoera ahalegina beraien egoera eta ikuspuntua ulertzeko?

Patria telesaila Soraluzen grabatuko balute, hausnarketa eragingo luke. Ala?

Laister jakingo dugu, azkenean, Soraluze aukeratu duten ala ez. Momentuz, Soraluzetar batek baino gehiagok irakurri du liburua, bertan agertzen den herria Soraluze dela irudikatuz.

**TELESAILA
SORALUZEN
GRABATUKO BALUTE,
HAUSNARKETA
ERAGINGO LUKE. ALA?**

Aitziber Sarobe

NATURKON ELKARTEA

EGOITZ UNAMUNO

ARGAZKIA: NATURKON

Otsailaren 5ean, arratsaldeko 19:00etan, Naturkon elkarteko bi kideak, Aitziber Sarobe eta Iñaki Aizpuru biologoek, *Gipuzkoarako baso-politika berri bat* izenburupean, hitzaldia eskainiko dute antzokian. Bertan, hizketagai izango dituzte pinuaren gaixotasuna eta basogintzaren krisia. **Zer da Naturkon?** Gipuzkoako talde naturzale eta ekologista guztiak biltzen dituen elkartea da. 2011n sortu genuen.

Zein da zuen iritzia pinuaren gaixotasunak sortu duen egoeraz? Orain dela hamar urtetik bagenekien eszenatoki honetara gentozela, bai guk eta baita sektoreak ere. Azpian, landa eremu osoaren krisia dago. Gero eta urrutiago bizi gara baserri mundutik eta pinudiena lehen sektoreak bizi duen egoeraren metafora da. Pinuak diru asko eman du eta espezie bezala eskerrak besterik ez zaizkio eman behar. Baserri asko berritu dira pinuari esker. Gestio ereduak da arazoa.

Azken asteotan egoera zerbait lasaitu da, ezta? Ez nuke esango lasaitu denik. Udaberrian arazoa areagotu egingo da. Seguraski jendea ohitu egingo da, baina arazoak okerrera egingo du eta administrazioak eskuartean darabiltzan erremedioek ez dute inolako konponbiderik ekarriko. Kaltetuta dagoena ezin da bere onera ekarri eta arriskua dagoena gaixotzen joango da. Horrek ez dauka atzera bueltarik.

Zer paper jokatzeko du basogintzaren industriak? Azken berrogei urteotan basoa bideratu da egur merkea ekoiztera eta interes hori ordezkatzeko duen taldea da Basquegur. Gaur egun, zoritxarrez, eurak agintzen dute administrazioan. Gainera, beste egurrik balego ere, Euskal Herrian gaur ez luke aterabiderik izango, ez dagoelako azpiegiturarik. Berrogei urtez, monokultiboak modu intentsibo eta teknika agresiboekin ezarri izanak ekarri duen ondorio larriena da lurzorua

pobretu dela ikaragarri. Ikusi besterik ez dago euria egiten duenean errekek zer daraman. Ehundaka urtez ondu den lurra.

Lurjabeak zertan ari dira? Lurjabe handiek administrazioa eta industria alde dituzte eta lasaiago daude baina, gehiengoak, lurjabe txikiak, xok egoeran daude. Informazio eta ezagutza falta handia dago. Kontuan hartu behar da industria kezu den arren, inoizko egoerarik onenean dagoela. Hainbat eta hainbat urtetarako dauka ia zero kostuan ordainduko duen egurra, toneladak eta toneladak. Beste kontu bat da basojabeena. Horientzat desastrea da.

Naturkonen ustez zein da jarraitu beharreko bidea? Natur-kontserbazioaren ikuspegitik, ustiapen eredu horren aurka gaude eta arauak eta moduak planteatzeko ditugu ingurumenean egiten diren kalteak gutxitzeko, baina hortik industria nola bideratu behar den esatera, hori ez da gure lana. Sail honetan ez dago ikerketa eta garapena bultzatzeko inolako laguntzarik. Argi dago arazoari aterabidea emateko basoari beste etekin batzuk atera behar zaizkiola. Administrazioak saritu behar du bide hori, baina momentu honetan ez da ari egiten.

Gizartearen ardura dela aldarrikatzen duzue eta horretarako espazioak sortu behar direla. Bai, eta galdera da hori non eta nola egin. Aldundiak bilera bakarra eskaini zigun eta bertan argi esan ziguten ez zeukatela inolako interesik Natura 2000 sarea garatu eta natur kontserbazioaren alde ezer egiteko. Horrelaxe esan ziguten. Gure ustez ezinbestekoa da parte hartze publikorako mahaiak sortzea, ezagutza eta interes ezberdinak lantzeko. Badaude aditu asko eta hortik abiatu daitezke aterabideak.

Zeini dago zuzenduta otsailaren 5eko hitzaldia? Denei. Lurjabeen, baserritarren, herritarren eta industriari. Natur kontserbazioan interesa duen edonori. Argibide batzuk emango ditugu gure basoetan gertatzen ari dena ulertzeko.





Zuria

ARGAZKIA: CARLOS DE COS KAMUS

TESTUA: UBANE MADERA

Carlos de Cos, Kamus, argazkilari soraluzetarrak Kontrargiren argazki rallyaren azken edizioko sari nagusia jasoko du bihar, zapatua, elkartegian. Irudikoa *Zuria* gaiarekin landutako argazkia da. Apurtutako soka duen globo zuria eta karez zikindutako eskua baliatu ditu Kamusek konposiziorako: "Globo zuria fondo beltzean nabarmendu egiten da, eta, era berean, globoa bera oratu egin behar den zerbait da; soka ere hortxe du". "Hala ere, kontuan hartu rallyrako argazkia dela, eta denbora-muga izaten dela lantzeko". Argazki rally horretan parte hartzen hasi zenetik (2009-2010), behin izan ezik, gainerako edizio guztietan eskuratu du sariren bat Kamusek. Bosna gai emanda, egun bateko tartearekin atera behar izaten dituzte argazkiak modalitate horretan.



Eraso matxisten aurrean planto

Urtarrila hilabete gogorra izan da herrian indarkeria matxistari dagokionean: 20 egunean bi urruntze-agindu ezarri dizkiete bina gizezokori, Soraluzen egindako eraso matxistengatik.

Urtarrilean birritan bete-bete egin da Plaza Berria biolentzia matxistaren kontra. Adin eta sexu guztietako hainbat herritarrek adierazi dute kontrakotasun irmoa, halako jarrerak gaitzetsiz.

Urteko lehen egunean, Gipuzkoa mailako alderdi politikoetako ordezkariak ere bertan zirela egin zuten

elkarretaratzea ehunka herritarrek. **Bizirik Zutik** kartelak eskuetan zituztela, isiltasunean baina ozen plazaratu zuten salaketa.

"Adin-txikikoa babes gabe"

Urtarrilaren 20an, berriz, egin zuten bigarren elkarretaratzea plazan. Bigarren hori ere jendetsua izan zen eta argazki

bera errepikatu zen. Eta, biolentzia matxista ez ezik, justiziaren konplizitatea ere salatu zuten elkarretaratzean, epaileak erasotzaileari ezarritako zigorra bidezkoa ez zelakoan. "Emakumeak urruntze agindua lortu arren, jakinekoa da neurri horrek ezer gutxi balio deuela errealitatean. Gainera, adin-txikikoa babesgabe utzi dute erasotzaileari txikiarekin egoteko eskubidea eman diote-eta".

Etxean ez

Hilabete honetan Soraluzen entzun den mezua, bada, garbia da. Korner Morea elkarte transfeministak eta Soraluzeko Udalak deitutako protesten amaieran esan zuten moduan: "Eraso matxisten aurrean ja ez gara etxean geratuko, plazara irtengo gara behin eta berriz, gaur bezala, zurekin gaude".

Egun osoko greba, eta egun osoko ekitaldiak, M8a aldarrikatzeko

Atzo, eguena, bi batzar egin zituzten M8ko Plataforma sortzeko, Korner Morea elkarte transfeministak deituta. 16:00etakoan, bereziki, hainbat dendarik eta merkatarik parte hartu zuten; 19:00etan, berriz, hainbat herritarrek erantzun zioten deiari.

Batzarretan adierazitako moduan, eta iazko deialdiaren erantzun ikusgarria ikusita, aurten egun horri begira, modu "antolatuagoan" nahi dute jardun, parte-hartze zabalagoarekin. Eta foro moduko bat nahi izan dute abiatu, M8 Plataforma baliatuta, bertaratzen direnen proposamenak eta ekarpenak jasotzeko.



Eguen iluntzeko batzarrean parte hartu zuten herritarrek. UBANE MADERA

Kalean ikustarazi nahi dute

Hala, besteak beste, iragarri zuten Euskal Herriko Mugimendu Feministarekin bat eginez, egun osoko Greba Feminista deituko dutela aurtengo Martxoaren 8rako. Eta

egun horren bueltan, goizerako zein arratsalderako ekimenak antolatu nahi dituztela, greba egun osoan plazara, kalera irteteko. Hala, egun osoko mobilizazioa izateaz aparte, berau ikustarazi egin nahi dute.

Erdigunea itxita ibilgailuendako

Atzotik, eguenetik, atzera ere itxita dago erdigunea ibilgailuendako, arratsaldeetan zein asteburuetan

Atzotik, urtarrilaren 24tik, zirkulaziorako itxita dago erdigunea arratsaldeetan eta asteburuan. Horrela erabaki dute ikusi dutelako orain arteko berrantolaketak "gabeziak" zituela, Iker Aldazabal alkateak esplikatu duenez. "Errabaleko obrak hasi zirenean, adituen laguntzarekin modurik egokienean berrantolatu zen zirkulazioa. Hala ere, hobetzeko aukera ikusi dugunean, kasu honetan erdigunea oinezkoendako izateko, ez dugu

zalantzarik izan zirkulazioa berrantolatzeko".

Aldaketak zirkulazioan

Erdigunea itxi ahal izateko, honako aldaketak ezarri dituzte zirkulazioan: Baltegieta kalera zein bertako garaheetara sartzeko, Ezozibidetik behera jo beharko da. Eta Baltegieta garaheetatik edo kaletik irteteko, berriz, SAPArantz jo beharko da.

Gauza bera egin beharko dute Gabolats kaleko garaheetara

sartzeko ere: Ezozibidetik behera egin. Erdigunea zabalik dagoenean (goizez) Kalebarrenetik irten beharko da eta Udaletxe ondoko aldapatik gora egin. Erdigunea itxita dagoenean, berriz, Gabolatseko zubitik irten beharko da.

"Beste proposamen bat"

Oposizioeko EHBildu koalizioaren ustez, "azkenean zentzuzko planteamendua" egin dute. Baina, era berean, puntualizatu du "Gobernualdeak beste proposamen bat" zeukala eta eurena "aztertuta" hura hartzea erabaki dutela "soluzio gisa". Era berean kritikatu dute "Etxaburueta bi norabidetan mantentzeko hautua" egin izana, "bi kamioi gurutzatzean sor daitezkeen arazoak konponbide gabe utzita".



OIER LARREATEGI

Hondakin berezientzako garbigune txikia ipini dute Erregetxean

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak hondakin bereziak batzeko edukiontzia ipini du aste honetan Erregetxean, birziklatzea

errazteko. Horri esker, Eibarko edo Elgoibarko garbiguneetara eraman beharreko materiala Soraluzen bertan utzi ahal izango da hemendik aurrera.

EHBilduren alkategaia

Domekan, urtarrilaren 27an, bukatuko da EHBilduren alkategaia proposatzeko epea. Prozesu parte-hartzailea abiarazi du koalizio ezkertiarrek, «parte hartzea eta transparentzia» bermatzeko. Hautagaia proposatzeko www.elkarrekin.ehbildu.eus plataforman izena emanda egotea beharrezkoa da.

Proposamenak Bozketa atalean egin daitezke. Eta bat baino gehiago jasoko balira, proposatutako alkategai guztien artean bozketa egingo litzakete. Bakarra aurkeztuko balitz, berau izango litzateke Soraluzeko alkatetzarako EHBilduko hautagaia.

"Hitzetatik ekintzetara pasatu gara lau urteotan"

IKER ALDAZABAL ETA PATRICIA BORINAGA UDAL GOBERNUA

Udal Gobernuak lau urteotan "aurrerapauso" nabarmenak eman dituela adierazi dute berau osatzen duten EAJk eta PSE-EEK. **Asko egin dela uste duzue, hortaz.** Horrela ikusten dugu guk. Adibide batzuk aipatzearen, gehien ikusten diren jardueretatik hasita, honakoak egin ditugu: Hirukurutzetako biribilgunea, Pascual Churruca lantegia eta orubea udal jabetzarako lortu dira, futbol zelairako bidea argiztatu da, Soraluzeko Musika Eskola dagoen eraikinean (udal eraikina da eta Haurreskola, pintura eskola eta jantokia ere baditu) 110.000 euro pasako inbertsioa egin da haren egoera desegokiari buelta emanez; eta egin dira Gabolatseko urbanizazio lanak eta Errabal kalekoak. Bestalde, egin dira ere herriarentzat estrategikoak diren beste jarduera asko, nahiz eta ez izan horren bisibleak: Dolmenen Ibilbidea balioan jartzeko hitzarmenak eta lur erosketak, Sologoen Elektra Etxea Udal jabetzarako lortu da; Sagar Errekako putzurako bidea berreskuratu da; Uzkaté, Agarrebolu, Ezoziko... baserri bideetan hobekuntzak egin dira eta adibidez, esanguratsua izan

da hondakinak batzeko sistema berria inplantatzea eta hondakinak gaika batzeko baliabideak herrian bertan ipintzea. Bestalde, kiroldegian kalitatezko instalazioak eskaintzeko ahalegina egin da: 70.000 euro inguru inbertitu da, eta badirudi emaitzak eman dituela, ze bertako bazkide kopuruak marka hautsi eta 950 lortu zituen iaz kirol instalazioak. Orain, erabiltzaile kopuruak gora egin eta instalazioak txiki gelditu direnez, kiroldegia handitu egingo da, solairu bat gehituta. **Gizarte alorrean emandako pausoak ere nabarmendu dituzue...** Azpimarratzekoa da adinekoei begirako lanketa; Esperientzia Gela erantzun ikusgarria lortzen dabil, eta gainera, ekimen hori gauzatu da Soraluzeko Pertsona Nagusiak Ahalduzko Elkartearen baitan. Bestela esanda, orain arte egon ez den dinamika sortu da Soraluzen adinduak eurak protagonista dituen. Horrez aparte, Nagusien Astea antolatu dugu, Itxaropena elkartearen hobekuntzak egin... **Haur eta Gazte Sailean egindako lanketa ere baduzue aipagai...** Aurrerapauso garrantzitsuak egin ditugu. Agintaldia hasi

zenez, batzorde horrek 40.000 euroko aurrekontua zuen. Gaur egun ia hirukoiztu egin dugu hori, uste dugulako Haur eta Gazte saila estrategikoa dela, ze gu iritsi aurretik ez zegoen gazteendako eta umeendako definitutako proiekturik. Gure erabaki horren emaitza dira bi zerbitzuak gestionatzeko sistema koordinatua, Gazteleku berria, Udal Ludoteka handitu izana eta Gabonetako eta Aste Santuko ekintza programazioa. Umeek, gazteek eta gurasoek parte hartu zuten prozesu parte-hartzailearen emaitzak aintzat hartuta egin da hori guztia. Gainera, Gaztelekuko hezitzaileen lan baldintzak nabarmen hobetu ditugu, Gipuzkoako lan hitzarmenera egokituz. Horrek guztiak egundoko gastua suposatzen du, baina guk inbertsio modura ikusten dugu, nahiz eta gero ez azaldu inbertsioen atalean. Bestalde, aipagarria da ere Estaziñoko parkea, Jolasa Estaziñua prozesu parte-hartzailearen fruitua. Eta errepasso azkar honekin bukatzeko, Udal Gobernuak gauzatu ditu ekimenak laneratzeko beharra dutenei



Patricia Borinaga eta Iker Aldazabal osoko bilkuren aretoan. UBANE MADERA

"UDAL GOBERNUA LANTZEN DABILEN PROIEKTUAK DIRA ALDERDI GUZTIEK ADOSTUTAKOAK"

Udalaren gaitasun ekonomikoaren arabera eta beste administrazioetatik lor genezakeen finantzazioaren arabera. Bestea da, badirela apustu estrategikoak udal gastua handitzen dutenak, baina gero horiek ez dira inbertsio modura kontsideratzen, eta badirudi ez dagoela inbertsioetarako dirurik; baina ez da horrela, gastu arruntean daude sartuta. Eta azkenik, Bizikidetza Mahaia eratu da agintaldi honetan, era hori ere garrantzitsua dela uste dugu.

begira: urtero kontratatu ditu bost lagun, langabe gazteendako tailerrak egin dira eta laguntzak bultzatu ekintzaileentzako.

Besterik nahi baduzue gaineratu... Badira hiru puntu aipatzekoak. Bata da Udal Gobernuaren garatzen daileen Hirigintza proiektuak

alderdi guztien artean adostutakoak eta Hirigintza Plan Orokorrean zein Irisgarritasun Planean jasotakoak direla.

Proiektuak ez dira haienak edo gureak, dira herriak esandakoak eta herriarendako egindakoak eta guk kudeatzen ditugu

ELIZPE HORTZ KLINIKA



Zure genakoa hartu klinika, punta-puntako teknologekin lan egiten dugu. Cad-Cam sistema berritzailea erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea
SIBAILLIDE
Tel: 943 75 25 67
e-mail: elizpe10@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenerdik ostiralera
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenerdik ostiralera: 08:30-11:00 eta 16:30-20:30
Larunbatak: 08:30-13:30
Igandek: 08:30-14:30



Gosariak, oga, prentsa, pastelak, bombotak...
Itxera eramatzeko zerbitzua

Tel: 943 75 24 43

Txoko



Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgerak, ogitariekak, radiak, pizza, gazaria...
Enkarguak egiten dira
Tel: 943 75 17 88

IZXGURRE
Igeltzeritza




Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreformenak • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 640 867 290

MENDIZABAL
okindegia

Ogia • Prentsa • Gosariak



Astelehenerdik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta
Igandek
08:30 - 13:15

Kalebarran 10
Tel: 943 75 13 99

AURREZTU ENERGIA



Beratu ura eguzki izpiekin edo airearekin

fontaneria
San Andres
Irigintza

639 179 696 • sanandresirigintza@gmail.com

KM design

Kira Muntaiak

943 76 99 85

kmuntaiak@yahoo.es
www.kmdesign.es

Pol. Amalaga 5
BERGARA

Disinu eta Fabrikazio lanak

Sukaldeak
Horma-oinarriak
Logiak
Zoruzak
Ateak...

Arotzeria lanak oro har

Instalazioak

TXURRUKA
JATETXEA



Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetako menu berezia
Karta

www.txurruka.com
Tel: 943 75 15 81

"Agintaldia baldintzatuta dator egin bako lanengatik"

UNAI LARREATEGI EHBILDU KOALIZIOKO BOZERAMALEA

EHBilduk uste du Soraluze lau urteotan dezente "okerrera" egin duela, Udal Gobernuaren gestioaren ondorioz.

Inbertsioetarako diru falta nabarmendu duzue...

Instituzio nagusiek krisitik irten garela diote, diru-bilketan sekula baino gehiago ari direla batzen. Soraluze, berriz, inbertsioetarako dirurik ez dagoela diote. Beraz, garai onak ez dira aprobetxatu Udalaren egoera ekonomikoa hobetzeko. Diru gehiago sartu arren, ez dago aurrezki-poltsarik. Eta halakorik ezean, ezin dira egin beharrezko inbertsioak. Eta, gertatuko da, adibidez, igerilekuarekin gertatu dena: hura konpontzeko 100.000-200.000 euro bitarteko inbertsioa egin beharko da. Horren aurrean zer? 2020ko aurrekontuko diruekin egin edo kreditua eskatu? Udala ez da gai 100.000 euroko ezustekoari aurre egiteko? Bada, ez. Oraingo aurrekontuek datorren agintaldia ez dutela baldintzatuko diote, baina gestio ekonomikoa eta egin barik lagatako gauzek asko baldintzatuko dute. Eta beste krisialdi bat etorriko balitz? Murrizketak berriro?



Unai Larreategi. LOREA DE CASTRO

Proiektuetan "dezente gehiago egiteko aukera" ikusten duzue...

Hirigintza ikuspegitik gutxiegi egin da. Gainera egin den apur hori aurreko agintaldian diseinatutakoa izan da: Gabolatseko aldapa, eta GI-627ko biribilgunea (Diputazioak); orain hasi dira Errabaleko obrak. Hori agintaldi osoko balantzea izatea oso pobrea da herriko premiak ikusita. Plazentzian ez gaude kapritxotarako. Ondo eta asko pentsatutako kudeaketa egin behar da, gainontzeko administrazioen laguntza ere behar da bizi-kalitate indartsua nahi badugu. Garapen

ekonomikoari dagokionez, indize guztien arabera, atze-atzean dago Soraluze (langabezia altuena, per capita errenta baxuena...); hala ere, ez dute ezer egin. Soraluze krisi sistemikoa dago, ez gara irten krisitik eta ez gara irtengo bestelako lanketarik egiten ez bada. Hori ez da onargarria. Eta zela gestionatu dute Alkarrekin Soraluze dinamika? Osorik erori da gaztelua, eta ondorioz gauzak jendearekin batera egiteko filosofia-bidea galdu egin da. **Herria zaindu gabe dagoela ere salatu duzue...**

EHBilduren inkestaren diagnostikoan herritarrek diote Soraluze zaindu gabe dagoela, triste, gris... eta jendeak beste bizipoz bat nahi du, eta bizi den espazioak ere hori transmititu dezala nahi du. Hori ez da Udalaren zeregina bakarrik, komunitate guztiarena da. Baina lidergoak Udalarena izan behar du. Gainera, EAJk eta PSE-EEk esan zuten hori izango zela euren bandera, eta ez da asmatu.

Besterik gaineratu nahi duzue...

Etsigarriena da gauzak elkarrekin egiteko dinamika apurtu egin duela EAJren eta PSE-EEren Udal Gobernuak. Eta okerrera da gobernuaren oposizioa ekuaziora joan garela berriro ere, politika estilo zaharkitura. Uste dugu ere, gobernuaren baitan PSE-EE ez dela izan gai bere bi zinegotzietan erabaki propioak hartzeko. EAJk (Ikerrek) agindu du erabat, eta PSE-EEk tragatu.

"GARBITASUNA UDAL GOBERNUAREN BANDERETAKO BAT IZAN ARREN, HERRIA ZAINDU GABE DAGO"

Kalean segituko dute

Tinko, indartsu eta protestan segitzeko zalantza barik plazaratu ziren "pentsio publiko duinen" alde, mobilizazioak hasi zituztenetik lehen urteurrena bete zen eguneko elkarretaratzean.

Kandelez eta bengalez lagunduta ekarri zuten gogora pensio publiko duinen alde orain dela urtebete hasi zirela protestan; eta bide beretik segituko dutela azpimarratu zuten urtarrilaren 14ko elkarretaratzean.

Hain justu, besteak beste, jakinarazi zuten hauteskundeetan testuinguruan gauden honetan,

alderdi politikoei eskatuko dietela "posizionatu daitezela" euren eskaeren aurrean, eta azpimarratu zuten edozein gobernuren aurrean euren "kontsigna" izango dela "pentsioak defendatzea". Gogora ekarri zuten orain arteko mobilizazioei esker honakoak "lortu" dituztela: "Pentsioak %01,7 eta %1,6

igotzea; pensio minimoak %3 igotzea; alargunen soldata arautzailearen kalkulua %55 eta %60koa izatea 2018an eta 2019an hurrenez hurren, eta iraukortasun-faktorearen aplikazioa 2013ra arte luzatzea".

Aldarrikapen nagusiak falta

Hala ere, nabarmendu zuten oraindik "oso urruti" daudela euren errebindikazio nagusiak lortzetik: "Pentsioen KPIren igoera urterokoa izatea bermatzea (...) ere eta oro har, kalitatezko zerbitzu publikoak lortzea", euren esanetan, bizitzaren azken fasean duintasunez bizitzeko.

Laburbilduz, bada, inguruko udalerrietan moduan, Soraluzen ere kalean segituko dute pensio publiko duinen alde protestan.



ELIXA LABAIEN

"Badut esperantza"

Esan daiteke zerbait mugitu dela. Gora-beherak badarabiltzate edo, behintzat, bat edo batzuk arduraren bat hartu dutela esan genezake, eta badut esperantza. Kosta egingo da, baina badut esperantza. Egunen baten edo bestean kale egin dut, ezin izan dudalako etorri, baina ahal dudan guztietan etortzen segituko dut.



PEDRI LETE

"Pauso asko falta dira"

Noski merezi duela protesta egiteak. Geure pensioak defendatzeko, eta esateko ez dutela zertan erabili pentsioen dirua beste zerbaitetarako. Apurtxo bat mugitu direla uste dut, baina oraindik asko falta da. Esan dute KPIa igoko dutela, baina oraindik pauso asko falta dira. Pentsioak oso behean daude. Nik segituko dut etortzen, noski.



MARIA LUISA ALBERDI

"Lortzen ari gara gauzak"

Protestara etortzea merezi du askorengatik. Lortzen ari gara gauzak. Neuk urtebetean protesta bat bera ere ez dut laga, eta ez dut lagako osasuna dudan artean. Pentsatzen dut egingo dutela zerbait, badarabiltzala mugitzen, baina gehiago lortzeko, segitu egin behar dugu, nik, behintzat, geure esku dagoela pentsatzen dut.

27 urte kantuan

EGOITZ UNAMUNO

ARGAZKIAK: ARTXIBOA

Mende laurden bat baino gehiago pasatu da herrian Santa Eskeko ohitura berrabiatu zutenetik. Harrezkero, urtero, otsaileko lehen zapatuan, lagun-talde ederra ateratzen da baserri baserri. Eskaintzen dutena beti da gauza bera: trikitia, koplak eta umore ona; baserritarrengandik jasotzen dutena ere, beti izaten da gauza bera: jan-edana, limosna eta maitasuna. Osagai horiekin egiten dute urteroko ibilia, eta horrelaxe sortzen da baserrietako atarietan eta sukaldeetan magia; beti bera eta beti berria!

“Gure taldeak badauka flowa eta hamaika bertute, performantzea eskaintzen dugu limosnatxo baten truke!” (Iazko koplak bat)





GUTUNAK

Lanak, garajea eta komunikazioa

PILI VALERO ALBERDI ETA JOSE LUIS ARIZAGA URIZAR

Gaztelupeko terraza parean dagoen garajearen erabiltzaileak gara.

Bertan egiten ari diren lanen eraginaren inguruko informazio zuzenik jaso ez genuenez, udalean galdetzea erabaki genuen. Hasieran, Gila zubiko sarbidea irekita egongo zela esan bazuten ere, a zer nolako sorpresa hilaren 11n zubia itxita aurkitu genuenean. Erantzuna, obrako langileek itxi zutela.

Hurrengo egunetan, Baltegieta kaletik barrena iritsi ginen garajera, bidean oztupo ugari gaindituta. Gure inozentzian eta kontuan izanda lanen eremuan dagoen garaje bakarra dela, pentsatu genuen bigarreanean itxiera abisua

jasoko genuela. Bada, ez, hilaren 17an, itxita topatu genuen garajeko sarrera Baltegietatik ere.

Pelikula bateko gidioia ematen du, baina gauza hauek XXI. mendean gertatzen ari dira Soraluzen. Sineztezina.

Lerro hauek idazten dihardugun momentuan, behar den tokian kexa azaldu eta lau egunetara, oraindik inor ez da gurekin harremanetan jarri. Lotsagarria.

Gure haserrea zuekin elkarbanatzerakoan, gure barrua apur bat lasaitzeaz gain, lortu nahi genuke, aurrerantzean, dagokionak jarrera egokiagoa izatea. Ulertzen dugu normala dela eragozpenak izatea, baina bizilagun kaltetuok eskertuko genuke jarrera arretatsuagoa.

Alde positiboan bilatu behar eta, kotxea garajetik kanpora

geratu da behintzat. Esandakoa, gertaera aproposa film baten gidioia egiteko.

Hitzorduak

HAUTSAK HARROTZEN TALDEA

Hautsak Harrotzen taldeak Maskulinitatea feminismotik berrikusten izenburupean, hainbat hitzordu antolatu ditu:

Maskulinitades y feminismo liburua aurkezpena

Hizlari: Jokin Azpiaz Carballo (soziologo eta aktibista soziala). Urtarrilaren 29an, 18:30ean, antzokian.

Maskulinitatea eraldatzen tailerra

Zarauzko Toka gizon taldeak eskainita. Otsailaren 2an, 10:00-13:30ak bitartean, antzokian.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

HAUSNARKETA

Udal-jardunaren balorazioa

Lau urteotan Soraluzeke Udalak egin duen jardunaren gaineko balorazioak egingo dituzte alderdi politikoei. Balorazioa egiteko eskatu diegu herritarrei eurei ere.



ALEJANDRO ERRASTI

"Nire ustez lana ondo egin du alkate honek. Gauza asko egin ditu, eta laguntasuna eskatuz gero, segituan ematen du arreta. Atentzioa ondo zaintzen du. Eta, adibidez, Ezozibideko aldapako eskaileren kontua, ondo laga du. Ni konforme nago alkate honekin".



AINHOA VELAZQUEZ

"Herria ikusten dut lagata, garbitasunean, iturri kontuetan... zikin-zikin dago. Edukiontzia inguruak, kaleak, etxeak... dena. Hondakinen kontua da lotsagarria. Jolastokiak, oro har, erabat lagata daude, eta ume nagusiagoendako ez dute ezer egin. Ez nago batere konforme egindako lanarekin".

ZIR(R)IKA

P.G.



PUNTUA



LEIRE ELIZBURU

Maisu handiari agurra

Urtarrila erdi inguruan, erromerizale eta soinu inguruan gabiltzan jendeak berri tristea jaso genuen. Errege egunez, trikiti giroan erromeria prestatzen ari zela, Laja, soinujole ezaguna, ondoezak jo zuen eta egun gutxitara zendu zen.

Esan daiteke Iñaki -ezagunagoa Laja izenez-, trikitiarekin jaio zela, eta trikiti doinuak eraman zuela. Urte askoan, ia 60 urtean, Euskal Herriko txoko asko eta asko alaitu izan ditu bere trikitiba eskuetan zuela, baita niretako berezia den San Andres auzoko festa ere, eta afari asko. Pasa den urtean, Aisterrazun eta San Andres auzoan, esaterako, merezitako omenaldiak jaso zituen, bere erromeriako grin hori bizi-bizi mantentzearen.

Erromerietan inoiz ez zen falta, bidekoa edota fandango edo arin-arin bizi eta alairen bat. Luze jo zezakeen erromeria ingurukoei belarriak alaituaz eta hankak dantzan jarriaz. Ederra zen bera entzutea, eta ederra bere atzamarrak trikitiaren botoiak laztanduz nola mugitzen zituen ikustea ere. Bere umiltasun handiarengatik, eta aurpegiari beti ageri zuen irribarreari esker, Laja, maisu handia, oso maitatuta izan da denean.

Dagoen lekuan dagoela, trikiti panderoei soinua ateratzen segi deigula, bere oroimena bizirik mantenduz.



ESTHER ALTUNA

"Nire bizitokia, Zeleta, apur bat abandonatuta dago. Udaletxera kexatzera joateko asmoa dugu barandak eta eskailerak eskatzeko. Badirudi zerbait badabiltzala egiten, baina... Alkatea atentoa da, orain denari baietza esaten dio baina hortik egiten duenera ikusi behar".



JOSE LUIS ORUESAGASTI

"Gauzak egin direla pentsatzen dut. Txarrera, behintzat, ez du egin herriak. Badakit, adibidez, lursail batzuk erosi dituela Udalak mendigaietan, Errabaleko etxe zahar horiek ere botatzekoak zirela... mugimendua badagoela uste dut, bai".

Geltoki nagusia non ipini, herritarren esku

Otsailaren 11tik otsailaren 17ra bitartean, herriko autobus geltoki nagusia non ipini erabakitzeko aukera izango dute herritarrek. Herri-galdeketa deituta, Sorluzeko Udal Gobernuak balizko hiru kokagune proposatu ditu, herritarrek bat aukera dezaten.

Testua: **Ubane Madera.**
Argazkiak: **Ubane Madera eta Oier Larreategi.**

Sorluzeko historia demokratikoan Udaleko eta herriko gaiei buruz egingo den lehen herri-galdeketa egingo da otsailean. Galdera honakoa izango da: Nun nahi duzu kokatzea autobus geltoki nagusia? Erantzuteko hiru aukera dituzu: Errabal kalean (gaur egungo tokian), Zubi Nagusian ala Baltegieta kalean.

Zazpi egunetan - otsailaren 11tik otsailaren 17ra - botoa emateko aukera emango du Sorluzeko Udalak. Horretarako eskubidea izango dute Sorluzen erroldatuta egonda, urtarrilaren 1etik aurrera 16 urtetik gora duten bizilagun guztiek. Nortasun agiria aurkeztu beharko dute bozkatzeko, hori bai. Botoa emateko, berriz, leku bakarra izango da: Udaletxea.

Hain zuzen ere, astelehenetik barikura, goizez, eguerdira bitartean eman ahalko da botoa: 10:00etatik 13:00ak arte, Udaletxeko lehen solairuan dagoen Udal idazkaritzan. Zapatuan eta domekan, berriz, goizez 10:00etatik 13:00ak bitartean; arratsaldez, ostera, 16:00etatik 19:00ak bitartean eman ahalko da botoa, Udaletxeko bigarren solairuan dagoen osoko bilkuren aretoan.

Botoak Udaletxean

Asteburuko galdeketa egin ahal izateko, zapatuan zein domekan, hauteskunde-mahaiak eratuko dira, goizez eta arratsaldez; herritar guztiek aukera izan dezaten botoa emateko. Hiru pertsonak eratuko dute mahaia, udalean ordezkaritza politikoa duten alderdi bakoitzeko ordezkari banak, bozketaren gardentasuna bermatzeko.

ASTE BARRUAN GOIZEZ ETA ASTEBURUAN GOIZEZ ZEIN ARRATSALDEZ BOZKATU AHALKO DA

Botoak, berriz, Udaletxean bertan eskuratu ahal izango dira. Hauteskundeetan bezala, “erreserbatu” bat ipiniko dute eta bertan hiru aukerak gehi gutun-azala egongo dira, gero botoa eman ahal izateko.

Bestalde, gaiak duen garrantzia dela-eta, osoko bilkura ez-ohikoa deituko du Udal Gobernuak, besteak beste, herri-galdeketa udalbatzarrean lantzeko. Otsailaren 7an, eguenean, egingo da, 19:00etan. Interesa duen edozein bertara daiteke.

Abantailak eta desabantailak

Soraluzeko geltoki nagusia non ipini erabakitzeke hiru aukera daude, bada, hautagai. Eta zela ez, hirurek dituzte abantailak eta desabantailak.

Geltokia Errabalen uzteak duen abantaila da ez dela inbertsiorik egin behar. Izan ere, ezin da inguruan egokitzapenik egin geltoki egokia bertan eraikitzeke. Horrek esan nahi du geltokia orain dagoen bezala geratuko litzatekeela: eguraldiaz babesteko markesina barik, eta autobusari itzaroteko jarleku barik. Bi kasuetan, arrazoia da ez dagoela espazio nahikorik aipatutakoak ipintzeko. Markesinari dagokionez, legearen arabera, ezin da ipini etxeen fatxadari itsatsita, gutxieneko espazioa izan behar da etxeen eta markesinaren artean; hortaz, errepide aldera ipini behar litzateke, eta ez dago horretarako lekurik.



Geltokia Errabalen uztea da aukeretako bat.



Geltokia Zubi Nagusian ipintzea da beste aukera bat.



Geltokia Baltegieta ipintzea da hirugarren aukera. .

Jarlekuei dagokienez, berriz, espaloian ipini beharko lirateke, baina leku txikia denez, oinezkoei egingo liekete traba. Horrela esplikatu dute udaleko adituek.

Desabantailak desabantaila, proposamena mahai gainean mantentzea erabaki du Udal Gobernuak, hainbat herritarrek tokia ontzat ematen dutelako, alkatearen esanetan.

Zubi Nagusia

Geltokia Zubi Nagusian ipintzeak, berriz, desabantaila nabarmena dauka: 58.000 euroko inbertsioa egin beharko litzateke. Batetik, lurrazpiko edukiontziak hustu eta tapatu egin beharko lirateke, baita gaineko zorua egokitu ere. Bertatik kendutako edukiontziendako beste kokaleku bat ere bilatu beharko litzateke. Horrez aparte, besteak beste, markesina ere beharko du geltokiak Zubi Nagusian. Bestalde, abantaila zera da, geltokia herri erdi-erdian egongo litzatekeela.

"Geltokia Baltegieta ipintzea proposatzen du Udal Gobernuak"

IKER ALDZABAL UDAL GOBERNUAREN IZENEAN

Autobus geltokia non ipini herri-galdeketa bitartez erabakiko duten arren, Udal Gobernuak argi du lekuri aproposena dela Baltegieta. Halaxe esplikatu dute:

"Udal Gobernuak urbanizazio lanen proiektua mahai gaineratu zuenean, autobus geltokiaren aldaketa ere proposatu zuen. Eta proposatzen du, zehazki, Baltegieta kalean ipintzea, kiroldegi gainera igotzeko dagoen arrapalaren azpian gelditzen den puntuan. Zergatik? Berez, arrapalak estalpea ematen diolako; bestetik, aukera daukagulako, gaur egun moduan, hiru jarleku ipintzeko. Proiektuan aurreikusitako moduan, gunea argizatuko egingo genuke, ilun dagoelako. Eta autobus enpresek eskatuta, aparkaleku gune hori moldatu beharko litzateke: autobusak barrura sartu ahal izateko, espaloian sarrera eta irteera moldatu egin



Iker Aldazabal. PIL-PILEAN

beharko genituzke xaflan batzuen bitartez. Lan horien guztien kostua 9.000 eurokoa izango da.

Errabal ez da egoki ikusten

Errabal kaleko proposamena, berriz, ez da egoki ikusten, ze aztertzen ibili ginenean Errabaleko obren proiektua, ikusi zen kaleak duen zabalerarengatik ezin dela

bertan ipini ez markesinarik eta ezta jarlekurik ere. Kaleak ez du nahikoa zabalerarik guztiarendako, errepidea eta espaloia ditu eta gaurko legediaren arabera gutxieneko neurriak bete behar dira aipatutakoak ipintzeko; hortaz, guneak ez du horretarako aukerarik ematen.

Kostu ekonomiko handia

Zubi Nagusiko aukera, oster, ez dugu aztertu. Batetik, duen kostu ekonomikoarengatik, 58.000 euro kostatuko litzateke bertako lurrazpiko edukiontziak kendu, zuloak bete, ondoren autobusak geratzeko gunea egokitu eta hortik aparte markesina eta argi puntu bana ipintzea. Bestetik, edukiontziak beste puntu batean kokatu beharko lirateke. Zein da horretarako puntu egokia? Gaur egun dauden lekuan lagatzea? Hori guztia aztertu egin beharko litzateke".

HERRI-GALDEKETAREN EMAITZA DOMEKAN BERTAN JAKINARAZIKO DUTE ETA LOTESLEA IZANGO DA

Balategieta kalean

Azkenik, geltokia Balategieta kalean, kiroldegiko sarrera alboan, ipintzeak ere abantaila ekonomikoa izango luke, 9.000 euroko gastua besterik ez dute-eta egin beharko bertan.

Udal Gobernuak esplikatuakoaren arabera, autobusak bertara sartu-irtena egiteko espaloia egokitu beharko lukete, argi puntua ipini, ilun dagoelako, eta apur bat txukundu, besterik ez. Zeren, aterpea badu dagoeneko eta hiru jarleku daude bertan ipinita. Balategietako kokalekuari dagokionez, baina, desabantaila bat nabarmendu du Korner Morea Elkarte Transfeministak: puntu beltza da, euren esanetan.

Hiru proposamenak mahai gainean izanda, bada, orain herritarrek dute azken hitza. Herritarrek erabakitzen dutena bete egingo dela azpimarratu du Iker Aldazabal alkateak. "Emaitzak domekan bertan jakinaraziko dira. Eta herritarrek erabakitzen dutena egingo da. Argi laga nahi dut erabakia loteslea izango dela".

"Aukera on eta egoki bakarria dagoenez, ipini dezagun Gila Zubian"

UNAI LARREATEGI OPOSIZIOAN DAGOEN EHBILDU KOALIZIOAREN IZENEAN

Oposizioan dagoen EHBilduren ustez, aukera bakarria dago geltokiarendako. Halaxe diote: "Galdera honakoa da: Bada herrian aukera onik geltokiak bete beharreko gutxienekoak beteko dituen? Horri erantzunez irtengo balira bat baino gehiago daudela, bada, goazen galdetzera herriari. Baina kalean berba eginda, eta galdera hori berori eginda, erantzun bakarria irteten da: Gilako Zubia. Zergatik? Jendeak nahi duelako markesina egotea eta jarlekuak, jarrita egon ahal izateko zain; bereziki edadetuek, autonomia galdu nahi ez duten edadetuek eta autobusa hartzerako euren bakarrik joan nahi dutenek, seme-alabak baldintzatu barik, ze edadetu horrek nahi du bakarrik ibiltzea batetik bestera, baina akaso ez dago prest markesina eta jarlekurik ez badago hotzetan eta euripean autobusaren zain egoteko, ez



Unai Larreategi. PIL-PILEAN

duelako horretarako adinik. Beraz, Errabalen ezin bada markesinarik ipini, Errabal ez da aukera bat.

Eta kiroldegikoari dagokionez, Korner Moreak berak ere esaten du ez dela leku batere segurua; ondorioz, baldin badago segurtasuna bermatzen duen beste aukera bat, bada, automatikoki hori baztertu egin beharko litzateke.

Aukera bakarria gelditzen denez, hau da, a priori, aukera on eta egoki bakarria, ondorioa garbia da: ipini dezagun Gila Zubian eta listo.

Gainera, pentsa Gila barik Errabal irteten dela. Ze kontuan hartu behar da herri guztiak bozkatu ahal duela, eta gehiago dira autobusa erabiltzen ez dutenak erabiltzen dutenak baino; beraz, zer gertatuko litzateke ohiko erabiltzaile ez diren herritarrek geltokia Errabalen egitearen alde bozkatuko balute (horrek kosturik ez duelako)? Arrisku hori badago. Eta halakoak saihestu egin behar dira, herriari ahalik eta zerbitzurik onena eman eta kolektibo ahulenak eta txikienak aintzat hartuz, edadetuen kolektiboa, esaterako. Berdin da zenbat erabiltzaile diren. Zergatik bultzatu behar ditugu edadetuek autonomia galtzera eman ahal diegunean laguntza-plus bat?



Onintza Ibarzabal, hockeyko taldekideekin. IRAITZ IBARTZABAL

Patinaje elkarteak sortzeko asmoa

Patinajearekin interesatuak dauden herritarren zerrenda osatu eta, ahal balitz, herrian taldea osatzeko deialdia egin dute

“Ba ote dago Soraluzen patinajea eta berarekin lotura duten kirolak praktikatu nahiko lukeen herritarrik?”, horixe da azken hilabeteotan Iraitz Ibarzabalek eta Silbia Maria Morenok buruan darabilten galdera. Eta azkenean

pausoa eman eta herritarrei zuzenean galdetu zieten Plaentxia.eus atariaren bitartez.

Bada, galderak dagoeneko "erantzun asko" jaso ditu umeen partetik, eta baita helduagoen partetik ere. Iraitz

Ibartzabalek jakinarazitakoaren arabera interes handia eragin du gaiak eta "animoso dabilta".

Zaletasuna konpartitu nahian

Ibartzabalek txikitatik izan du patinajerako zaletasuna, eta horrexek berak eroan zuen orain dela hiru urte, bere alaba, Onintza Ibarzabal, Bergarako Burdinola hockey klubean izena ematera. Orduetik, burubelarri jardun du kirol horretan eta, gaur egun, 13 urterekin, jokatzen du alebin, infantil eta emakumeen taldean, Espainiako ligan; Euskal selekzioan parte hartzeko ere deitu diote.

Alabarekin konpartitzen duen afizioa beste herritar batzuekin konpartitzeko gogoak bultzatu du Ibartzabal herrian patinaje elkarteak sortzeko aukera aztertzeraz.

Patinatzen ikasi edo hockeya praktikatzeko interesa duten herritarrek Iraitz Ibarzabalekin jar daitezke harremanetan, 688 66 56 27 zenbakira deituta. Nahikoa herritar batuz gero, Iraitzek eta Silbiak elkarteak sortuko dute.

Soraluzeko pilotariak Pilotako Euskal Ligako Nagusien mailan dihardute lehian

Soraluzeko Pilota Elkarteko pilotariak Pilotako Euskal Ligako Nagusien Mailan, Eskuz Binakakoa jokatzen ari dira urtarrilaren 12az geroztik.

Hain justu ere, iazko azaroan Gipuzkoako txapeldun izateari esker, Soraluzeko Pilota Elkarteko pilotariak ere ari dira lurraldea ordezkatzeko Pilotako Euskal Ligan.

Txapelketaren hasiera fasean, pilotari guztiak ari dira guztien kontra jokatzen, ligaxka eran.

Soraluzeko pilotariei dagokienez, bi partidu jokatzen dituzte oraingoz. Lehena Manex Balerdik eta Gorka Santamariak osatutako bikoteak eta bigarrena, Aitor Atxotegik eta Ibai Bolinagak osatutakoak. Bi partiduak galdu egin zituzten.



Atxotegi jokoan. UBANE MADERA



Gipuzkoaren etorkizuna gure desio guztien batura da.

Eskatu desio bat eta pentsatu desiatzen duzunean mundua aldatzen hasten zarela. **Desio baten atzean helburu bat dagoelako.** Eta helburu baten atzean, errealitate berri bat. Beraz, pentsa ezazu: zeintzuk dira etorkizunerako zure desioak?

Desioak etorkizunez beteta daude. **Eta desio horiek guztiak batuta eraikiko dugu Gipuzkoaren etorkizuna.**

Etorkizun On.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz

#niredesioa

Arkeologoaren hitzaldia

Otsailaren 8an, Aranzadiko eta unibertsitateko lau adituk hitzaldia eskainiko dute Karakate-Irukutzetako ondare megalitikoaz.

Dolmenen Ibilbidea: historiaurrean zehar ibilaldia izenburupean hitzaldia eskainiko dute Jesus Tapia Aranzadiko arkeologoak, Fernando Bazeta EHUKo zaharberritzaileak, Ibon Telleria EHUKo arkitektoak eta Mikel Agirre UNEDeko arkeologoak. Ondarearen balioaz eta udazkenean egindako lanen inguruan jardungo dute.

Otsailaren 8an da hitzordua, 18:00etan, osoko bilkuren aretoan.



Indusketa-lanak Kerexeta hegian.

Apirilaren 13an pasako da Korrika

21. Korrikaren ibilbidea ezagutarazi du AEK-k.

Lasterketa erraldoia apirilaren 4an abiatuko da Garestik eta, hamar egunez Euskal Herri osotik igaro ostean, Gasteizen amaituko da, hilaren 14an. Tartean, Sorluzetik ere pasatuko da, apirilaren 13an (zapatuan), 14:30ak aldera. Bergararik etorriko da eta Eibarrera joango da.

Aurtengoan, Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegí omenduko dute. Hizkuntzalari, idazle eta politikari donostiarra. Euskara batuaren bultzatzaile nagusia izan zen eta ekarpen oparoak egin zituen kulturaren eta hizkuntzalaritzaren arloetan. 2012an hil zen.

Aratusteetako mozorro lehiaketa

“Ipuina” da jai batzordeak aurtengo Aratusteetarako proposatu duen gaia. Lehiaketan parte hartzeko, bi baldintza bete beharko dira: taldeka mozorrotzea eta martxoaren 2an Kontzejupeko photocallean argazkia atera eta honako whatsapp zenbakira bidaltzea: 688 61 36 98.

Hiru sari izango dira: 150 euro; 100 euro. eta 50 euro.

Epaimahaia batzordeak izendatutako hainbat lagunek osatuko dute, eta batzordeak emandako puntuazioak %60ko pisua izango du puntuazioan. Gainerakoa, Plaentxia.eus-en egingo den bozketan zehaztuko dute herritarrek.



Enaitz Oruesagasti eta Laja trikitia jotzen jotzen, iaz, San Andresko jaietan.

"Laja" hil da, hogeita hamar urtean San Andresko jaiak alaitu dituen soinujolea

Urtarrilaren 12an hil zen Iñaki Garmendia Laja soinujole azkotiarra. Lajak hogeita hamar urte baino gehiagoan jo du San Andresko jaietan. Iaz

sanandrestrarrek omenaldia egin zioten berari eta bere emazte Axun Dorronsorori, “horrenbeste urtean auzora etorri izana eskertzeko”.



Erreketeak Irure aldeko mendi magalean. ELESPIAÑOL.COM.

Argazki argitaragabea

Montejurrako tertzioko erreketei Soraluzen ateratako argazkia publikatu du Espainiko egunkari digital batek, beste hamabost argazkirekin batera.

SORAPEDIA TALDEA.

Urtea hastearekin batera, *Misas, piojos y vacas: las fotos inéditas del bando franquista en la Guerra Civil* (Mezak, zorriak eta behiak: Gerra Zibilean frankisten bandoari ateratako argazki argitarabeak) artikulua argitaratu dute elespanol.com egunkari digitalean. Bertan, jaso dituzte karlistek gerra garaian Espainia osoan eta Euskal Herrian ateratako 16 argazki, tartean, Soraluzen erreketei ateratakoa.

Erreketeak herrian

1936ko uztailaren 17ean gertatu zen altxamendua faxista Espainian. Hasieran, Soraluze Errepublikaren aldekoen

eremuan geratu zen, baina ez denbora luzean. Irailaren 21ean, herria hutsik geratu zen ia, biztanleen erdiek baino gehiagok ihes egin baitzuten iristear ziren “nazionalen” beldur. Biharamunean, irailaren 22an, Montejurrako Tertzioko erreketeak sartu ziren herrian.

Borroka gogorak

Ondorengo hilabeteetan, borroka gogorak gertatu ziren frankisten eta errepublikaren aldeko indarren artean. Gerrako frentea Krabelinaitz eta Illordo artean kokatu zen eta gudari eta milizianoek zazpi hilabetez eutsi zioten bertan, harik eta faxistek, 2017ko apirilean,

Kanpalekuan

Montejurrako tertzioko hamairu errekete ageri dira argazkian, Irure aldekoa dirudien mendi magalean muntatutako kanpalekuan. Atzean ikusten dira kanping-dendak, oihalez eginak, eta, azpikaldean, janaria berotzeko sutokia, kea dariola.

Intxortan frentea haustea lortu zuten arte.

Kale-izenak aldatuta

1937ko udazkenean, udalbatza frankistak irabazleen omenezko izenak ezarri zizkien herriko hainbat kaleri: *22 de Septiembre* Elizburu kaleari, *Martires de Arrate* Kalebarreni, *Tercio de Montejurra Plaza Barriari*, *Plaza de Navarra Plaza Zaharrari*.

Diktadorea hil zenean berreskuratu ziren kale eta plazen izenak.


Informazio gehiago

2015ean, Soraluze 1936 lantaldeak *Isiltasuna hausten* izeneko liburua argitaratu zuen, Liburuaren bertsio digitala ikusgai dago Sorapedia.eus webgunean.

**1937KO UDAZKENEAN,
UDAL FRANKISTAK
IRABAZLEEN
OMENEZKO IZENAK
EZARRI ZITUEN**

Pablo Mateo

LARRUGINA



Berrerabilpena ipar hartuta hasi zen Pablo Mateo (Badajoz, 1982). larrugintzan orain 12 urte. Bota kanperen, bota militarren, emakumeen boten... hondarrez egindako diru-zorroak egiten zituen lehenengo, baita poltsak ere, beste poltsa batzuen hondarrekin eta haginetaکو zetarekin josita, "niretzat eta nire emaztearentzat", dio.

Eskumuturrekoak, bushcraft...

Orain dela bi urte, baina, "saltoa" eman eta Soraluzeko artisau azoka batean parte hartzen hasi zen eta, gaur gaurkoz, langintza horretan dihardu, produktu gehiago eginez, hori bai: "Txartel-zorroak eta erlojuen eskumuturrekoak ere egiten hasi nintzen, eta, 2018an, bestelako produktu batzuk ere bai: gerriko poltsak, aiztoendako zorroak... Baita iraupena oinarri duen bushcraft jokoan erabiltzen den materialarendako zorroak.

Youtuben ikasi dut asko. Perfekzionatzen laguntzeko tutorial ederrak ditu. Gero, norberak egin behar du, baina oinarria hortxe dago".


Hori guztia, gainera, jatorrizko esentzia galdu gabe egiten dihardu Mateok. Izan ere, aprobetxatu izan ditu kalean lagatako hiru sofa, txerri larruzkoak. "Aiztoarekin kalera jaitsi eta larrua kendu nien.

Aurkitzen ditudan poltsa guztien materiala ere aprobetxatzen dut, kremaierak ez beste guztia: hebillak..."

Ordu asko eskaintzen dizkio uhalgintzari Mateok. Hala ere, argi du zaletasun moduan eutsi nahi diola. Horrek ez du kentzen, baina, balioan jarri nahi izatea eskulanen atzetik dagoen lan handia. Ildo horretan, bidezko merkataritza aldarrikatzen du, alegia, produktu bakoitza ordaintzea dagokion prezioan.

1. Pablo Mateo Gabonetako azokan.
2. Poltsa eta aiztoendako zorroak.
3. Poltsak eta gerrikoa.
4. Pablo Mateo lanerako erabiltzen duen erreminta nagusia erakusten: eskua.

Alex Rodriguez eta Pili Alonso



1. Pili Alonso eta Alex Rodriguez seme-alabekin.
2. Nahia, Unax eta Oihane, Euskal Aratuste jantzita.
3. Alex Rodriguez eta Pili Alonso.

Alex Rodriguez (Bergara, 1977) eta Pili Alonso (Tolosa, 1977) 2004 urtetik bizi dira Soraluzen.

Kanpotarrak izanda, Soraluze aukeratu zenuten bizileku...

Alex bergarra da eta biok genuen lanpostua inguruan. Etxeen prezioak gora egin zutela eta, Soraluzen egiten ari ziren etxeen berri izanda, ideia ona iruditu zitzaigun, gerora poliki-poliki aurreztu eta Bergarara joateko asmoarekin.

Zein izan zen hasierako inpresioa?

Herria ez zela "oso polita", baina ilusio handia genuen eta ia lo egitera baino ez ginen etortzen. Baina bizitzera etorri eta lehen egunean, bizilagunek eurekin poteatzera gonbidatu gintuzten, eta inor ezagutu gabe, jator-jator hartu gintuzten lagun modura. Horrelakorik ez da gertatzen Tolosan edo Bergaran. Han jendea ez da horren irekia eta bakoitzak bere lagun-taldeak ditu. Soraluzek bereizgarria

duen zerbait da jendea oso irekia dela eta herri txikiak zuten goxotasun hori duela. Umeak izan, jendea ezagutu, eta, gaur egun oso gustura gabiltza, ez dugu gogorik ez Bergarara ez Tolosara joateko. Soraluzek ez ditu hiri handi batek dituen aktibitate edo eskaintzak, baina badu zerbait jendea gustura sentiarazten duena.

Zer da Soraluzetik gehien baloratzen duzuen?

Hiru seme-alaba izanda, Soraluzen duten autonomiarako aukera mundiala da, denok ezagutzen dugu elkar eta laguntzeko prest ere bagaude. Dena dago gertu, eta beharrezkoak diren baliabideak eskura ditugu: erosketetarako saltokiak, medikua, eskola, kiroldegia, musika-eskola... gehiago behar al da? Akaso eguzki gehiago; horretarako "proiekturik" balego... broma da!

Fca.: Frantziska Iraolagoitia

HERRIKO EKIMENAK BIDEOAN JASOTZEN DITUEN BORONDATEZKO KAMERALARIA

EGOITZ UNAMUNO

ARGAZKIA: FERNAN OREGI.

Musika jaialdiak, zezenak, boxeo, jaunartzeak... Denetariko ekimenak jasotzen ditu Frantziskak bere bideo-kamararekin. Dagoeneko ohikoa bihurtu da herrian egiten den edozein ekitalditan Frantziska grabatzen ikustea.

Ehunka grabazio ordu ditu artxiboan, disko gogor eta dvd-tan gordeta (zapata kaxetan ordenatuta). Azken hamalau urteetan egindako lana da, borondatezkoa. “2005ean erosi genuen bideo-kamera. Lagun batek esan zidan polita zela umeak grabatzea gero nagusitan ikusi ahal izateko eta, halaxe, erabaki genuen kamera erostea. Etxeko grabazioekin hasi nintzen lehenengo, baina handik laster hasi nintzen herri mailako ekimenak grabatzen: danborrada, zezenak eta abar. Gustua hartu nion eta orain obligazio moduko bat da zeozer dagoenean grabatzeko”, dio irribarrez.

Denetariko ekimenak eta animaliak

Bere ekimenez grabatu ohi ditu grabaziorik gehienak. Esaterako, grabatuak ditu 2005etik 2018ra bitarteko danborradak, Gaztañerre azokaren edizioak, jaunartzeak, Basaur taldearen kontzertua... Badira enkarguz grabatu dituen ekimen ugari ere, herriko talde



Frantziska, Kamera eskutan.

edo pertsonaren baten eskariz immortalizatu dituenak: abesbatzaren urteurreneko kontzertua, Zutik Ozta Ozta nator, musika eskolako jaialdiak, jaietako musika jaialdiak, udate gaba, boxeo jaialdia, Kukumixoren kantua...

Herriko ekimenez gain, zaletasun berezia du animaliak eta natura grabatzeko: zezenak herriko jaietan, Oñatin eta Azpeitian; basurdeak, orkatzak... Paisaiak ere grabatu izan ditu; esaterako,

**"ORDU MORDOA SARTU
BEHAR IZATEN DUT
BAINA SATISFAKZIOA
DA GEROJENDEARI
BIDEOA EMATEA"**

ilunabarrak Karakatetik edo itsasoa Zarautzen.

Bereziak dira bideoak girotzeko egiten dituen audio grabazioak ere. “Batzuetan txoriak grabatzen ditut gero bideoetan erabiltzeko”.

Zabalpen handia

Bideoak grabatetik laster pasatu zen bideoak editatzera. Ordenagailua erosi zuen eta editatzeko programa erabiltzen ikasi ere bai. Ondoren, editatutako bideoak oparitzen hasi zen. “Beti izan dut bideoak konpartitzeko gogoia. Bideoak editatzeko ordu mordo sartu behar izaten da baina satisfazioa ematen dit gero jendeari emateak”.

Hasieran, bideoak dvd-etan banatzen zituen, baina, gaur egun, whatsapp ere zabaltzen ditu bideoak, eta Plaentxia.eus-en

youtubeko kanalean ere zintzilikatu ditu beste hainbat. Hain zuzen, iazko San Roke Txiki egunean grabatu zuen zezenaren bideoa (bankuan sartzen zena) izan zen 2018an kanal horretan ikusitaldirik gehien jaso zituen bideoa; 2.000tik gora.

Bestalde, hasita dago urtebetetze eta ezkontza urteurrenetan zoriontzeko bideoak egiten ere: "Editatzen dut bideoa pertsonalizatuta bere izenarekin eta bidaltzen diot whatsappetik".

Etorkizunean balio handiagoa

Aurrerantzean ere grabatzen jarraitzeko asmoa du Frantziskak, nahiz eta horrek teknologia berrietara egokitzeko etengabeko ahalegina eskatuko dion. "Gero eta pisu gehiago dute bideoek eta horrek dakar gero ordenagailu potenteagoa behar izatea, eta programak eta horrela soka luzea... Materiala garestia da eta ordu asko sartu behar da, baina jarraituko dut".


Badaki denborarekin berak egindako grabazioek balore handiagoa hartuko dutela eta horrek are eta gehiago motibatzen du grabatzen jarraitzeko.

Esan liteke XXI. mendeko kronikagilea dela Frantziska, borondate hutsez eta ia konturatu gabe, sekulako ondare historikoa osatzen diharduena. Benjondeizula!



Frantziska, bideoak editatzen dituen gelan.

Egindako zenbait lan



Orkatza errepede ondoan
Iazko abenduan, Karakaten behera zetorrela, orkatza ikusi zuen bide bazterrean. Kameraren aurrean lotsatu eta beldurtu ez zen orkatza.



Zorion mezuak
Urtebetetze edo ezkon urteurrenetan, "mimoz eta maitasunez" landutako zorion bideo laburrak bidaltzen dizkie ezagunei.



Eganen kontzertua
2016ko irailaren 10ean Eganek bere azken kontzertuetako bat eskaini zuen Mesedetako jaietan. "Kontzertu amaiezina".



Sokamuturra Azpeitian
Aurten ere, urteo moduan, San Sebastian jaietako sokamuturra grabatu du Azpeitian, gero zezenzaleei oparitzeko.

ZERBITZUAK


ZORION AGURRAK



Alain Lopez Pellitero
Urtarrilaren 20an,
13 urte. Zorionak!
Zure familiaren
partez!



Julene Andrade Hernandez
Urtarrilaren 2an, 2
urte. Zorionak!
Guraso, amama eta
Nayalaren partez.



Jon, Amaia eta Enara Agirre
Abenduaren 5ean eta 22an eta urtarrilaren
10ean, 39, 43 eta 36 urte. Zorionak hiruroi!
Etxekoen partez.



Ivan Martin
Urtarrilaren 21ean
Zorionak eta egun
ona izan! Muxu
asko! Etxekoak.



Naia Romero
Abenduaren 25ean,
urte 1. Zorionak!
Etxekoen partez.



Intza Baglietto
Urtarrilaren 18an, 6
urte. Zorionak
printzesa, jarraitu
oin arte bezain
berezixa izaten.
Asko asko maitte
zaittugu maittia!
Aita, ama eta Arlene



Andrea Olaizola
Urtarrilaren 4an, 33
urte. Zorionak politt
hori! Etxekoak.



Ane eta Miren Lazkano
Urtarrilaren 12an,
21 urte. Zorionak!
Arizagako sorgiñei!
Intza eta Arlenen
partez!!



Unai Laskurain
Urtarrilak 20an, 9
urte. Zorionak!
Familia guztiaren
partez.



Naroa eta Ander Agirregomezkorta
Otsailaren 8 eta 9an,
6 eta 8 urte.
Zorionak bikote!!!
Oso ondo pasatu eta
patxo potolo bat!
Etxekoon partez!

ESKELAK

OROITZA

María Carmen Fernández Delgado



Urtarrilaren 3an hil zen.

Zure ezpainetan
kafe zaporea zuen irrifarre mitikoa
herriko giroan
biziko dugu betiko.

Sendia.

OROITZA

Maria Pilar Zuriarrain Irazusta



Urtarrilaren 2an hil zen, 87 urte zituela.

Zu joan zara, baina zureganako maitasuna ez.
Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza.

Sendia.

JAIOPERRIAK



Nagore Zubizarreta Revuelta
Abenduaren 18an jaio zen.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Ignacio Argarate Elorza
 Maria Pilar Zuriarrain Irazusta
 Maria del Carmen Fernandez Delgado
 Carmen Querejeta Pintado
 Maria Ezozia Aizpiri Iriondo
 Miren Zubizarreta Garcia
 Marcelo Matias Rodriguez Armesto

Jaiotakoak

Nagore Zubizarreta Revuelta

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskeintza

Tornularia behar da Soraluezko enpresa baterako. Garrantzitsua da, Fagor eta Fanuc kontroletan programazio esperientzia izatea. Interesatuok bidali curriculumna Correoseko 95. postakutxatilara.

Hortz klinika

27 urteko esperientzia

Javier Alonso Koldo Guñe
 Medikoa Odontologoa
 K.Z. 48.001.504 K.Z. 48.001.548

Erretad 1 - Tel.: 943 75 10 13

Kontulan

abokatuak

Errenta, zitargenak - Administrazioa lanak
 Trafikoko buruzkaria - Lan-arloko aholkularitza
 Enpresen konstituzio/ideoluzioak - Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. edif. 20590 Soralue
 Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

Soraluzeko Kooperatiba Elkartea
 1900etik zaharkitua

Arraindegia, janaria, errapak, etako freskak, etxera eramateko perditza

Kalebarren 4
 Tel.: 943 75 13 45

Astrolenetik ostiralera:
 08:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45
Larrietatik: 08:30 - 13:00

KLB6

Kalebarren 6
 943 67 71 26
 Multzo-eta modako modagilea

Pepe Jaurea
ISOLID
VERO MODA

sutarako egurra salgai
 pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
 basolanak

img. 625 71 34 08

Euskalzaletasunaren alde:



Jatearen plazera,
bertatik bertara

MENU BERRIA 20€ (ostiraletik igandera)

- Sarrerakoa
- 6 lehenengo plater aukeran
- 6 bigarren plater aukeran
- 6 postre aukeran
- Urteko ardoa, sagardoa, gorri berezia...



Asteburuetan

- Ohiko karta, menu adostuak, umeendako platerak...
- Pintxo aukera zabala, ogibitar-teko eta hamburgesak
- Gure razioak: patata minak, txanpiak, kalamarrak, kroketak, txorizoa, muturrak, txipi-roiak...

Aste barruan (enkarguz)

- Bazkari eta afari bereziak
- Merendolak
- Etxerako eta soziedade-terako enkarguak...

OSTEGUNETAKO PELIKULAK

GAUEKO 9:00 ETAN ANTZOKIAN

EL REINO URTARRILAK 24



Zuzendaria:
Rodrigo Sorogoyen
Herrialdea:
Espainia
Urtea: 2018
Iraupena: 122 min
Hizkuntza:
Gaztelera

TODOS LO SABEN OTSAILAK 7



Zuzendaria:
Asghar Farhadi
Herrialdea:
Espainia
Urtea: 2018
Iraupena: 130 min
Hizkuntza:
Gaztelera

UN DÍA MÁS CON VIDA OTSAILAK 21



Zuzendaria:
Raúl de la Fuente
Herrialdea:
Polonia
Urtea: 2017
Iraupena: 82 min
Hizkuntza:
Gaztelera

CARMEN Y LOLA MARTXOAK 7



Zuzendaria:
Aranza Echevarría
Herrialdea:
Espainia
Urtea: 2017
Iraupena: 103 min
Hizkuntza:
Gaztelera

BOHEMIAN RHAPSODY MARTXOAK 21



Zuzendaria:
Bryan Singer
Herrialdea:
Erresuma Batua
Urtea: 2018
Iraupena: 134 min
Hizkuntza:
Gaztelera

SUPERLÓPEZ APIRILAK 4



Zuzendaria:
Javier Ruiz Caldera
Herrialdea:
Espainia
Urtea: 2018
Iraupena: 108 min
Hizkuntza:
Gaztelera